BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

4322

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 2koa, Energia eta Meategien zuzendariarena; honen bitartez erabaki da jendaurrean erakusgai jartzea Laguardia udalerrian Carlos Santamaria SLk sustatutako Asa harrobiaren ustiapenaren ustiapen eta handitze proiektua, leheneratze-plana eta ingurumen inpaktuko azterlana.

Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 41. artikuluan xedaturikoa aplikatuta, nahitaez aplikatu behar zaie ingurumen-inpaktuko ebaluazioko dagokien prozedura Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egin nahi diren plan eta proiektuei, publikoak zein pribatuak izan, eta betiere legearen I. eranskinean bilduta badaude.

Energia eta Meategien Zuzendaritza honetan hasiera eman zaio Laguardia udalerriko Carlos Santamariak sustatutako Laguardiako Asa harrobiko ustiapen– eta handitze-proiektuaren eta leheneratze-planaren ingurumen-inpaktuko azterlanaren banakako ebaluazioari buruzko izapidetzeari.

Proiektua proiektuen ingurumen-inpaktuko ebaluazio-legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuan bilduta dagoenez, legegintzako errege-dekretu horretan aurreikusiriko ingurumen-inpaktuko ebaluazio-prozedura aplikatu behar zaio, eta, horrenbestez, jendaurrean erakusgai jartzeko 30 eguneko aldia erabaki behar da, errege-dekretu horren 9. artikuluan araututakoari jarraiki.

Horrenbestez, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ere aurreikusitakoari jarraiki, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– 30 egun balioduneko aldian, ebazpen hau EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, jendaurrean erakusgai jartzea Laguardia udalerriko Carlos Santamariak sustatutako Asa harrobiaren ingurumen-inpaktuko azterlana, ustiapen– eta handitze-proiektua eta leheneratze-plana, nahi duenak egoki irizten dituen ohar, alegazio eta kontsulta guztiak aurkez ditzan proiektuaren baimena ebazteko eskuduna den organoan, hau da, Eusko Jaurlaritzaren Energia eta Meategien Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 5. solairua).

2. artikulua.– Aurreko artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, proiektuak, leheneratze-planak eta ingurumen-inpaktuko azterlanak osatutako espedientea Eusko Jaurlaritzaren Energia eta Meategien Zuzendaritzan eskuragarri egongo da (Donostia kalea 1, 5. solairua, Vitoria-Gasteiz).

Era berean, eta herritarrei ere aipaturiko agiriak baliatzeko aukera errazteko, espediente hori Arabako Industriako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, 01008, Araba) eskuratu ahal izango da kontsultatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 2a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
OSKAR ZABALA RABADÁN.